# -Cuando Arragüeta dejó de llamarse ARRAGÜETA-

*Nuestro agradecimiento a Don Felix Berraondo, por su aportación de recortes de prensa de la época.*

Casi todos los eibarreses conocen que Eibar pasó a ser Bizkaia durante un corto periodo de tiempo, a raíz de que la Diputación de Gipuzkoa llegó a contactar con la Convención Francesa a cuenta de las derrotas sufridas y la casi total ocupación de la Provincia por las tropas del país vecino (1794).

Pues bien, a semejanza con el periodo de tiempo en que Eibar fue Bizkaia, Arragüeta dejó de llamarse oficialmente con su tradicional nombre durante aproximadamente un mes.

Mas, vayamos a la historia y, después, saquemos nuestras propias conclusiones.

Corría el año 1925 y en España el poder lo detentaba el General Primo de Rivera. Durante su mandato, fueron disueltas las Corporaciones elegidas democráticamente y sustituidas por hombres afines al régimen

dictatorial y también por personas apolíticas.

Esto no gustó ni a los socialistas ni a los republicanos, que constituían la mayoría de la población eibarresa, que criticaba abiertamente a la Corporación.

Por aquellas fechas, falleció D. Miguel María Orbea, prestigioso industrial y político conservador, al cual se le conoció más por Don Mario, (según podemos leer en las crónicas del periódico "El Liberal", siendo corresponsal del mismo diario el Sr. Gorrocha).


Su entierro, según el mismo corresponsal, fue "uno de los mayores, ya que en la comitiva formaban elementos de todas las clases sociales". Don Mario fue alcalde de Eibar durante los primeros años del siglo actual, donde destacó acaudillando la fracción conservadora y monárquica de nuestra localidad, en franca oposición con los republicanos y socialistas.

El día 1 de diciembre de 1925 (martes) se celebró el primer pleno municipal del último cuatrimestre, bajo la presidencia de D. Jose González Orbea, con asistencia

de 14 concejales durante dicho pleno y, a petición del concejal Sr. Echeverría, quedó sobre la mesa, por varios días, para su exámen y estudio, una moción presentada por Don Gregorio Bolumburu, proponiendo que a una de las calles más importantes de la entonces Villa se le pusiera el nombre de Don Miguel María Orbea, en recuerdo del ilustre finado que, al decir de la moción, trabajó de una manera benemérita por el engrandecimiento de Eibar.

No gustó esta moción a los elementos "progresistas" pero, a pesar de ello, en el último pleno del año -29-12-1925- y, tras haberse retirado del salón de Sesiones el alcalde D. Jose González Orbea y el Sr. Murillo, la Corporación acordó "Cambiar de Nombre a la Calle de Arragüeta" (queremos señalar que no asistieron a dicho pleno los Sres. Iraegui, Echeverría y Beistegui).

Como comprenderán, los comentarios en nuestra po-



**D. Enrique Mendia en la calle Arragüeta. Un colaborador más de nuestra revista.**

blación fueron variados y de todos los gustos.

La familia Orbea no quiso que uno de sus miembros, ya fallecido, fuera un motivo de polémica y división en nuestro pueblo y, así, mediante una carta firmada por D. Jacinto Orbea, tras agradecer a la Corporación el acuerdo tomado, pedía que se dejara sin efecto dicho acuerdo de cambiar de nombre a la Calle Arragüeta, ya que consideraban que D. Miguel María había sido en vida enemigo de ostentaciones.

Y así, en el pleno de 11-2-1926, se acordó dejar sin efecto el cambio de Nombre.

Como conclusión, y si examinamos los cambios de Nombre que a través del tiempo han sufrido nuestras Calles, no estaría mal que se utilizaran los toponímicos o bien los nombres que la costumbre local los ha refrendado, eliminando todos los nombres de Políticos y sustituyéndolos por los tradicionales.

*Jose Mari Errota*



**Aunque se propuso el nombre de D. Miguel M<sup>a</sup> Orbea para sustituir a Arragüeta, su familia pidió se dejara sin efecto el cambio de nombre, a fin de evitar polémicas.**

# El renacer de la calle Estación

La calle de la Estación, que comenzó a desarrollarse a partir de la llegada del ferrocarril por el último decenio del 1800, tuvo una época de esplendor entre los años 1925-1936.


En la citada calle se ubicaban dos de los principales bancos: el Banco de Vizcaya en la planta baja del nº 6 y el Banco de San Sebastián en la del nº 8; también contaba con las mejores joyerías: la Casa Gandiaga y la de Don Agustín Larrañaga; el Hotel Comercio, regentado por el Sr. Murillo, y el Salón Teatro Cruceta, junto al Café del mismo nombre, amén de los Almacenes de Maquinaria de Ignacio Anitua y de otros comercios importantes. Por aquella época el ferrocarril era prácticamente el medio de transporte que unía Eibar con Donostia, Bilbo y Gasteiz, lo cual obligaba a "pasar" por dicha calle a todo eibarrés que tenía que desplazarse.

Los sábados y domingos era costumbre el "paseo", que los eibarreses lo hacían entre Ibarrekurutz y la Estación, reuniéndose la juventud de la entonces villa.

Pero he aquí que el estallido de la guerra de 1936 lo cambió todo. El Salón Cruceta fue destruido por el bombardeo de abril de 1937 y la destrucción de Eibar y su reconstrucción cambió las costumbres por completo.

El paseo dominical comenzó y tomó cuerpo en la Calle Calbetón y la Plaza de Unzaga, los bancos cambiaron de emplazamiento, más tarde el boom del automóvil relegó al ferrocarril, desapareció el Hotel Comercio y todo ello fue motivo para que la calle perdiera su prestigio.

Mas he aquí que una nueva generación de comerciantes, dispuestos a



**Aparte de la iluminación por cuenta propia de la calle, los comerciantes han colocado árboles navideños a lo largo de ella.**



Diversos comerciantes de la calle Estación, en fotografía tomada en dicha calle. Aparte de los "históricos", los nuevos también se han integrado en esta fase de realce de la calle.

una "resurrección", se lanzan a mejorar y abrir nuevos establecimientos, el metro Eibar-Ermua y la variante abren nuevas costumbres, todo ello hace que cual Ave Fénix esta calle vuelva a recuperar gran parte de su pasado, lo cual repercute en el bien de nuestro Eibar.

Una de las actuaciones de estos comerciantes, a los cuales se les ha unido el gremio de la hostelería, ha sido el iluminar por cuenta propia la susodicha calle durante las fiestas navideñas, dando un ejemplo que no estaría mal lo hicieran también en aquellas otras a las que no llega la "iluminación oficial".

*Margarita Olañeta*

Bulego altzariak eta papertegia

**ETESA**

Bidebarrieta, 66 20600 EIBAR

Tfnoa: 943 12 19 73 / 74

Faxa: 943 12 70 68

**BULEGO  
INSTALAZIO  
OSOAK**

**Barrenetxe**  
**GOZOTEGIA**

**Eibartarren denda  
DONOSTIAko Gipuzkoa Plazan**

# Galería de Eibarreses



Coro de féminas de San Agustín, dispuesto a actuar en la misa en favor de la "Cofradía del Bacalao".



Mientras unas cantan, otras se preparan para rezar con una sonrisa en los labios.



Nuestros amigos de Correos, que tanto ayudan a la Revista.



Maria Angeles Zulaica, Pepe Txikiena, Jesus San Miguel, Fernando Etxeberria y Jesus Egia, colaboradores de la Revista, siempre trabajando; aún en la mesa, sin tiempo de saborear un buen plato. Nahikua da!

# Galería de Eibarreses

"Untzagako  
paseatzailliak"



Enrique Gorrotxategi eta Maguregi  
solasaldian.



Ez genekixan Mujika jaunak  
Jardiñetako bizkarzaiñik bihar zebanik.



Lopez eta J.L. Albizu: astixa dake  
eta majo zaintzen dira.



Eibarko laukote ezaguna  
-bat Azkoittin jaixua bada be-  
eguzkixa eta haizia hartzen.

# Galería de Eibarreses



Maria Antonia Txurrukaren despedida.  
Arpegixak eta... modelo izateko  
moduko tipuak.

Despedidia ospatzen? Santa Luzia eguna?  
Alaittasuna arpegixetan bai behintzat.



Eibarko ille-apaintzaille edo pelukerak ospakizun baten aitzakixa aprobeztatuz.

# Galería de Eibarreses



Caras conocidas, en una fotografía de 1952. A la derecha Tere Ron, hoy día Superiora General de la Orden religiosa de la Pridencia de Aldatze.

Mercedes Kareagarekin,  
Larrañaga, M<sup>a</sup> Irene Ezenarro,  
M<sup>a</sup> Carmen Egaña,  
M<sup>a</sup> Asun Leturiondo,  
Ana M<sup>a</sup> Arriola eta Zita,  
1949ko argazkixan.



Mercedes  
Kareaga bere  
laguntzailiekin,  
1949ko irailian.


# Galería de Eibarreses



1968ko argazkixan, Illaramendi eta emaztia, Antonio Sarasua eta Etxanizekin batera.



Juan Solozabal,  
industria gizona.



Luis Iriondo, Sigmako  
zuzendarixa izandakua.



Cristina e Isabel Gaztañaga. La primera, esposa de Luis Iriondo.  
Isabel, por su parte, casó con Imaz y fue a residir a México;  
fallecida no ha mucho, desde esas lejanas tierras  
su familia sigue abonada a nuestra Revista.



Eibartarren kuadrillia;  
lagunak eta ezagunak  
danak.

# Galería de Eibarreses

Xabier Elorriaga eta Jon Barrondo kofrade barrixak, Iñaki Arriola alkatia, Cristina, Loli eta basarritar jantzitako neska-mutillakin.



## "Bakillauaren kofrade barrixak"

Angel Elizondo eta Jesus Mari Artola, Makillauaren Kofradixako bultzatzailliak. Jarraitu holan aurrera!



Goruntz abesbatza, kofrade talde barri bat. Holan jan, edan eta abestu be egin leike ospakizunetan.

# Galería de Eibarreses



Mutil-koxkorrek antxitxiketan egitteko prest.  
Juan Garate eibartarrak irabazi zeban probia.



Polikarpo Larrañagak zuzendutako nesken taldea "Sagar dantza" korruan dantza egitten.  
Korrída plazan egindako ekitaldixan jasotakua tuberkulosuei laguntzeko erabili zan.

Deba Beheko lehelengo  
pilota txapelketa, 1941ian.  
Goixan: Luis Urdanpilleta,  
Vicente Elgoro, Pepe Arrazola  
(goian bego), Angel Urreta (g.b.),  
Lomiño, Ignacio Leturiaga  
"Txato" (g.b.) eta Jose Lamarain.  
Behian: Elias, Eusebio Zaitegi,  
Gerardo San Martin  
eta Eli Ojanguren.  
Zaitegi eta Kondia  
azpitxapeldunak izan ziran.



# Galería de Eibarreses

1962ko argazkixan, Pedro Arrizabalaga eta emaztia, Eskola Armerixako atian. Bertan dagoz be Barojatarrak, Eulojio Garate, Bolunburu eta Jesus M<sup>a</sup> Larrañaga zuzendarixa.



Arizmendiarrieta-Muñoz ezkontza. 1944an Pagei kalian etaratako argazkixa. Hura bai sasoia, Balentin!



“Beltxi”ttar danak batuta, 1965ian. Arizmendi matrimonixua, famelixakuekin euren urrezko eztaiak ospatzen.

# Euskal Y-aren ordeztu L-aren alde egin dute merkataritza ganbererek

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako merkataritza ganbererek EAEko abiadura handiko trenbide sareari buruzko behin betiko plana zehaztuko dute. Lehen azterketan betiko proiektua -Y- utzi eta hiriburuen arteko loyura lineala -L- egitea proposatu dute.

Proiektua baino ez da oraingoz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ganberetako buruek azaroaren 9an Gasteizen eskaintako prentsaurrekoan adierazi zutena. Datozen asteetan proposamena findu egin nahi dute, «larrialdi osoz» jardun behar baita abiadura handiko trenbide sarearen gaineko egitasmoa 2000. urterako erabat zehaztuta edukitzeko asmoz, eta, horrela, Europako Batasunak finantzatuko dituen hamalau obra handi horietako bat izan dadin.

Nolanahi ere, ganbererek kostu osoaren zati bat pagatuko luketela aurreratu zuten atzo hiru ganbera horietako arduradunek. Haien arabera, L-ak ez luke balioko Y-ak baino «%10 edo %20 gehiago».

Ganberen proposamenaren ezaugarri garrantzitsuetako bat da ez duela planteatzen azken hamarkadan nagusitutako euskal Y famatua (hiru hiriburuak lotuko lituzkeen sarea Elorrio-Angiozar ardatzetik), baizik eta nolabaiteko L bat (lotura izango litzateke Gasteiz-Bilbo-Donostia, eta, beraz, kendu egingo luke Gasteiz eta Donostia arteko lotura zuzena).

Izan ere, ganbererek uste dute Y-ak, ardatz europarraren barruan, «zokoratu-ta» uzten zuela Bilbo, baina orain beste era batera lotzeko modua dagoela diote Bizkaiko hiriburua «errentagarritasun sortzaile ardatza» izatearren, eta hori «teknologia berriek» aspaldiko planteamenduak zahar laga dituztela aintzat hartuta.


Horrela, ganbererek uste dute L-ak Y-

ak baino bidaia denbora gutxiago igarotzea ekarriko duela Gasteiztik Bilbora (12 minutu gutxiago) eta Donostiatik Bilbora joateko (11 gutxiago); hori bai, Gasteiztik Donostiarako lotura gaitzaile aterako litzateke. «Dena den, bost minutuko atzerapena gutxi dela iruditzen zaigu esplotazio eta material kostuei dagozkien abantailak kontuan hartuta», aipatu dute arduradunek. L-ari buruzko proiektuak %60ko aurreztea ekarriko lukeela esan dute (zerbitzu bera emateko Y-ak 17 tren beharko lituzke eta L-ak 6 besterik ez).

Alternatiba berriak proposatutako ibilbidean «zerbitzua emateko borondatzea» nagusi dela dio: «Zerbitzuaren esplotazio arrazionalagoa lortu nahi da. Argi izan behar da azpiegitura bitartekoa dela eta zerbitzua helburua», azpimarratzen du.

## HIRIBURUETARA LUR AZPITIK SARTUZ

Euskal Y-aren proiektuan ikamika dezente eragin zituen kontua da hiriburuetara sartzeko modua. Ganbererek taxututako planak dio sarrera hori lur azpitik egingo litzatekeela hiriburu guztietan, eta, horrela, geltoki intermodalak jartzeko aukera planteatu da.



EAEko hiru ganberetako agintariek Madrilen nahiz Lakuan aurkeztu dute proposamena, eta guztiek ere oso begi onez hartu dutela nabarmendu zuten. «Argi dago aztertze moduko alternatiba dela denborak eta kostuak murriztarazten dituelako eta eskaera handitzen duelako». Era berean, L-aren proiektuak tuneletan nahiko eremu handia hartzen duenez, ingurugiroaren aurka eragin gutxiago izango duela ziurtatu zuten.

Ganbererek argi eta garbi dute egitasmoa ez dagokiola soilik EAEko sareari: «Europa kontinentalaren eta Iberiar Penintsularen arteko lotura hobetzeko proiektua da. EAetik igarotzen den ardatz transeuroparra da, eta abagune hori aprobetxatu beharra daukagu». **Europako loturaz gainera, hiru hiriburuaren artekoa hobetuko duela uste dute.**

Luis Karlos Garcia



Juan San Martín

Nor zan Ertzil? Gaur egun, denok ezagutzen degu David Olañeta'n izeko zana. "Mutil zar" baña buru onekua, euskalzale amorratua ta langille bikaña. Arek gordetako bertsoak Juan San Martinek azaltzen desku.

# Karlisten gerrateko kantak (II)

Historia aldetik beren garrantzia dutenak, zenbait gudu, Ertzilek kantatu zizkidanetatik honako hauek dira garrantzitsuenak; Irun, Araba eta Abarzuzako guduak edo atakeak.

Gipuzkoan bazter baten erritxo bat Irun; ia orren gaiñean zerbait esan deigun: Alperrikan atakau, Irun gau ta egun, an sartzeko karlistarik ezta jaio iñun.

Deskuidu baten karlistak artu balebe Irun, kanpairikan osorik ez zan geratuko iñun. Len argialdi bat izan dogu, orain gagoz illun, indar geixagon kontra asko jaio da bigun.

Inoiz, lehen lerroan "Gipuzkoa baztartzuan" kantatu zidan, eta azken lerroan "jaio"ren orde "sortu". Eta, lehen eta bigarren bertsoak zortziko txikian kantatuarren, beren jarraian koplazko bertsoa kantatzen zuen, Xenpelar eta Musarro koplak ospetsuen doinuz, bukaeraz puntu bat gehituaz, behar bada karlisten kontra gero asma-tua. Honela da koplak:

Zenbat bonba dan erori, begiratzekerik nori, itxura ederra eman diote Irungo errixori. Karlistak beti, relijiñua, merke ta ugari.

Arabako gudu bat ere aipatzen du, batzuen balentriak eta besteen kobardiak kontatuz:

Arabako Segunda leenbizi zan asi; laster igarri genion ez zala nagusi.

Armok bota lurrera, arinka igesi, estuasun andiagorik ez dogu ikusi.

Baina hiruretan politena Abarzuzako guduarena da. Hogetabost milla karlista euskaldun omen ziren berrogetahamar mila liberalen kontra eta gutiago zirenak gehiengoei irabazi. Han erori omen zen Concha deiturako jenerala ere, bere Markes del Duero titulu ta guzi. Baina, gudu hartako politena, buruzagiak soldaduei hitzaldiz bota zien arenga hura da: "*¡Muchachos! Va frente de vosotros vuestro general; no hay que doblegarse. Un soldado ha de defender su patria. ¡Una bala tiene que recibirse como si sería una carta de la novia!*".

Hau liberalen lepotik parre egin nahirik bildu ahal izan nion bertso sorta da; 1874an Izarrako hiria bereganatu nairik hil zen Manuel Gutierrez de la Concha, Marqués del Duero, zena-ren kontura.

Hirugarren bertsoak zatia falta du. Hala ere, Ertzil ez zen hortaz ohartzen eta laburpenik ez balego bezala kantatzen zuen.

Hala zen Ertzilen ustez gerra haren zer ikusi guzia jokatzan zen gudua:

Atakian pasatu eitugu iru egun, gabaz ere igual, egonarren ilun. Gu atzeratzekorik apenaz da iñun; Concha bialdu dogu Luziferren lagun.

Arro ta panparroso baebillen galaz, ez genduela botako euskaldunen balaz; ikusi genduanian tiratzeko eraz, laister ipini gendun eramateko andaz.

Nunbait lenagotikan euken delitue, Abarzuzako atakien or da gelditue; Concha-k izan biar eban baltzen peritue.

Joakin Olañeta Ibarzabal "Ertzil" zena, aurrekoan esan bezala, 1885. urtean jaioa zen. Behin batean esan zidanez, kantarik gehienok bere aitonagandik ikasiak omen ziren. Zeren bere aitonak ere bertsoak paratzen ba omen zekien. Aitona, Tomas Ibarzabal, Jemeingo Arretxinagakoa zela, esan zidan; baina ondoko bertsoan ber-berak esaten duenez "Illoritxixen" jaio zen, eta Bariñako Illorogoitia delakotzat nago.

Hará hemen Tomas Ibarzabal, "Ertzil"en aitaitak bere buruari jarritako bertsoak:

Beste mundurako bere laster da abixue; beti emen bizitzia ezta presixue. Orain larogei urte Illoroitxixen jaiue, ..... ez juak arrue asko Tomas gijajue.

Agin zaarrok jua jakuz, ezin dira berdindu: burua zuritu ta bizarrak urdinu; ume batzuek orain eitzezkue agindu.

Bai hemen eta bai gainerakoetan, irakurlea ohartuko da, bertsoak funtsean gipuzkeraz badaude ere, inoiz bizkaitar joera dutela. Lehenago ere aditzera emana dugunez, bizkaitar bertsolariak, bereziki Markiñaldekoak, gipuzkerara jotzen dutela bertso gintzari heltzen diotenean.

Juan San Martín

**Gaur ase, bihar gose...**



# Arrain urdinaren mitoa

**A**rrain urdinaren propietateak ez dira errekonozitu izan duela urte gutxi arte; oso koipetsua denez ez zen gomendagarritzat jotzen eta jaten zen arrain apurra zuria zen. Baina Artikoan bizi diren eskimalen bihotz-gaixotasunen tasa hain baxua zela ikusirik, beren dietaren inguruko ikerketak egiten hasi ziren. Hauek beraiek kontsumitzen duten arrain urdinak odoleko koipe solidoak gutxiagotu eta, ondorioz, bihotz-eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunez babesten zituztenaz konturatu ziren.

Haragian ez bezala, arrainen koipe gehienak likidoak dira ohizko tenperaturaren eta olio deritze. Halaber esan, koipe-kopurua %5etik gora duten arrainek osatzen dutela arrain urdinen taldea eta, jakina, zenbat eta koipe gehiago izan orduan eta kilokaloria gehiago ahoratuko dugu. Baina arrain urdinen artean badira desberdintasunak: koipe-tsunak 100 g-ko 10 g koipe edo gehiago dutenak dira. Hauen artean daude angira, angula, atuna, berdela eta izokina. %5-10 arteko koipea dutenen artean berriz, antoxa, hegaluzea,



**Arraina urdina edo zuria den jakiteko, bere isatsak urkila irekiaren antza baldin badu urdina da.**

meroa, palometa, sardina eta txitxarroa daude.

Arraindegian zaudela arraina urdina edo zuria den jakin nahi baduzu, aski duzu arrainaren isatsari

erreparatzea, urkila irekiaren antza baldin badu urdina da. Oro har, arrain urdina oso mugikorra izaten da eta ibilaldi luzeak egiten ditu ur epelen bila. Hori dela eta, gizakiok bezala,

energia pilatu behar izaten du, eta hori koipea metatuz egiten du. Ba al zenekien hain prezia-tua dugun bisigua neguan arrain urdina dela eta udan arrain zuria? Ba bai, horrela da. Hotzetik babes-teko neguan koipe gehiago garatzen du eta %5etik gora edukitzen du eta udan, berriz, %2 inguru. Halaber, urte-sasoiaz gain bizitzako zikloak eta elikadurak ere badute eragina koipe-metaketan. Esaterako, antxoak arrautzak errun aurretik ondoren baino askoz koipe gehiago izaten du.

Arrainek dituzten proteina digiritzeko errazak izaten dira, eta beraien balioa haragiarenaren parekoa da. Bitaminei eta mineralei dagokienez, berriz, aipatzekoak dira A eta D bitamina-kopurua eta, halaber, iodo-aberastasuna.

Aipatutako arrazoi guztien-gatik arraina astean lau aldiz, gutxi gorabehera, jatea gomendatzen da, eta egokiena bariatzea denez, lau horietatik bi arrain urdina izatea.

**Ane Miren Uranga & Arantza Lorenzo**

*Elhuyar*  
137. zkia.



**Arrainek dituzten proteina digiritzeko errazak izaten dira, eta beraien balioa haragiarenaren parekoa da.**

# Loditasuna

**A**skotan entzun ohi dugu, garai batean janari ezaren gaitzak zirela ugari eta gaur egun, berriz, gehiegikeriarenak. Izan ere, gauzak nolabait horrela direla esan genezake, zeren eta loditasuna da gaixotasun metaboliko ugariena munduan. Era berean, badirudi, garai batean, gazte nintzenez, "erretiroa" baino lehen, edota jubilatuta aurretik, ezerk ez ninduela loditzen eta orain, aldiz, edozerk on egiten didala eta "erantsita" geratzen zaidala.

Hau dela eta, batez ere uda garai honetan hainbeste kezkatzen edota begi aurrean dugun loditasunari buruz zenbait argibide ematen saiatu nahi nuke.

## - Zer da loditasuna?

Gorputzeko "gorputz-koipea" deritzaionaren gehitzea da. Berau, altueraren eta pisuaren arabera neurtu dezakegu:

I.M.C.= pisua (kilotan)/altuera (metrotan)

Beraz, I.M.C. delako hau 25 eta 29.9 artean aurkitzen denean "potxolo" gaudela esan dezakegu, eta 30 eta 34.5 artean dagoenean, berriz, lodi gaudela.

## - Baina zergatik dute adin- duak gizentzeko joera?

Eragina izan dezaketen faktoreak ugari izan arren, ariketa fisiko eza, dieta ezegokiak eta oinarritzko metabolismoaren gutxitzea



izango lirateke batezbesteko garrantzitsuenak.

## - Eta, zein konplikazio izan ditzake lodi egoteak?

Bizi denboraren murrizketa (bizitzeko perspektiba txikiagoa), arnasketa arazoak, arteroesklerosia, tentsio altua, arazo psikologikoak... etab.

## - Beraz, zer egin dezakegu arazo honen aurrean?

Loditasuna, tratamendu zaila duen gaixotasun kronikoa da. Hau dela eta, pisua poliki-poliki galtzen joan behar da, batez ere bakoitzari egokitutako dietan eta ariketa fisikoan oinarrituz.

Horiek horrela, hona hemen lan zail honetan lagungarri izan daitezkeen hainbat aholku:

- gutxitu itzazu grasa edo koipekiak, azukrea eta alkohola.

- jan batez ere barazkiak, fruituak eta zerealak; bai eta esnekiak ere (hobe gaingabetuak).

- ez jan orduraz kanpo; ez "pikatu".

- astiro eta ondo mastikatuz jan, eta, ahal bada, lagun artean.

- kontutan hartu, gosariak bikaina izan behar duela, egun osoari begira egindakoa; afariak, al-diz, arina izan behar du.

- hartu platerean nahi zenukeen baino kazokada bat gutxiago. Hobe jateko gogoarekin gelditu, guztiz aserik baino.

- ez erosi gustoko dituzun txokolatearik, fruitu lehorrik, gozokirik..., tentazioa uxatzeko modu ona da.

- egizu egunero 30 edo 60 minutuko ariketa fisikoa.

Dena den, esan ohi da euskaldunok ez dugula bizitzeko jaten, baidiz jateko bizi garela; beraz, ohitura zaharrei eutsiz, utz ditzagun "trapa-lak" egun berezietarako; egunero-koan, berriz, zaindu dezagun gure dieta, egokien diren elikagaiak aukeratuz, geure osasunak eskertuko digu!

**Amagoia Muruamendiaraz**  
ICTE, Instituto Comunitario  
de la Tercera Edad

— TU aldizkaria —

**“Pisua poliki galtzen joan behar da, bakoitzari egokitutako dietan eta ariketa fisikoan oinarrituz”**

## DECALOGO DE LA OBESIDAD

1. Debe pesar los alimentos en la cantidad indicada y tomarlos a las horas previstas. No "picar" entre horas.
2. Sustituya el impulso de comer por un vaso de agua, infusión de té o manzanilla, o por una pieza de fruta.
3. No compre alimentos que le sean muy apetecibles, como chocolate, dulces, helados, frutos secos, patatas fritas, aceitunas, embutidos, etc. No los tenga en casa.
4. No coma solo, no coma de pie. Realice cenas ligeras.
5. Busque una ocupación para aquellas horas en que le apetece comer (pasee, haga crucigramas, punto, trabajos manuales, etc.).
6. Utilice platos pequeños y extienda la comida en ellos. Coma despacio y mastique bien. No tome otro bocado hasta que haya tragado el anterior.
7. En los compromisos sociales (comidas, cenas, bodas, etc.) procure evitar el alcohol y los postres dulces.
8. Debe realizar ejercicio físico al aire libre (paseo, deporte) durante 30-60 minutos al día.
9. Pesarse una sola vez a la semana, en las mismas condiciones (ropa, hora, báscula).
10. La Obesidad no sólo es una enfermedad sino que condiciona la aparición de muchas otras: diabetes, hipertensión, gota, trastornos cardiovasculares, artrosis, etc.

Dirección General de Salud Pública de la Comunidad de Madrid

# Datos recogidos de la revista ...eta kitto!, referentes a OCTUBRE, NOVIEMBRE y DICIEMBRE de 1998

## Defunciones

ASUNCION BLANCO IGLESIAS. 90 urte. 98-X-5  
 JESUSA DAVILA MARTINEZ. 95 urte. 98-X-5  
 JUAN SENDIN MONTES. 94 urte. 98-X-7  
 CASTOR VILLAMARIN PEREZ. 72 urte. 98-X-9  
 PATXI AZPIAZU AIZPURI. 25 urte. 98-VII-10  
 NIEVES BILBAO ARRIZABALAGA. 77 urte. 98-X-11  
 ASUNCION FRANCO DIEZ. 86 urte. 98-X-13  
 JUAN M<sup>o</sup> ETXEBERRIA AGIRRE. 61 urte. 98-X-14  
 ELENA URIBE-ETXEBARRIA LARIZ. 74 urte. 98-X-15  
 ALFREDO GARCIA ORIVE. 69 urte. 98-X-16  
 CASTOR FERREIRO GULIN. 71 urte. 98-X-16  
 FEDERICO GONZALEZ SAINZ. 86 urte. 98-X-18  
 JOSE OTXANDIANO ALBERDI. 75 urte. 98-X-20  
 JOSE ANTONIO HOYOS CERECEDA. 61 urte. 98-X-20  
 JOSE M<sup>o</sup> GOMEZ AGIRRE. 68 urte. 98-X-22  
 ANGEL ZUAZUA URIBE. 65 urte. 98-X-24  
 GREGORIO ALDIZABAL BURGOA. 76 urte. 98-X-26  
 JESUS MENDIZABAL LETE. 86 urte. 98-X-26  
 MILAGROS PLACER CONDE. 92 urte. 98-X-28  
 NICOLASA ARIZNABARRETA EGAÑA. 90 urte. 98-X-29  
 PELI MUJIKI MAIZTEGI. 76 urte. 98-X-31  
 SANTOS EUSEB. ALBERDI GORROÑO. 75 urte. 98-X-31  
 JUAN JOSE GARCIA DE LA IGLESIA. 33 urte. 98-XI-3  
 FELICITAS EGUREN BEITIA. 68 urte. 98-XI-3  
 MARIA MENDIOLA ALZOLA. 87 urte. 98-XI-3  
 LAUREANO ZUBIZARRETA AGIRREBEÑA. 71 urte. 98-XI-4  
 FRANCISCA MANCHOBAS ARDANZA. 96 urte. 98-XI-6  
 ENGRACIA BLASCO OLIVEROS. 95 urte. 98-XI-12  
 PAULINO SANTAMARIA MADINABEITIA. 71 urte. 98-XI-16  
 EMILIA CAVIA CAPELLAN. 85 urte. 98-XI-19  
 PILAR LOPEZ ALVAREZ. 36 urte. 98-XI-21  
 AGUSTINA MURILLO RICO. 49 urte. 98-XI-22  
 JOSE VEGA MORENO. 58 urte. 98-XI-23  
 ISIDORA SAEZ GONZALEZ. 83 urte. 98-XI-24  
 DOROTEO ASTABURUAGA EGIA. 73 urte. 98-XI-24  
 PATRICIA GARITAONANDIA MUJIKI. 85 urte. 98-XI-24  
 ADOLFO LASTRA ARANZABAL. 82 urte. 98-XI-27  
 FELIX GOJENOLA IRIONDO. 86 urte. 98-XI-29  
 JULIANA MTNEZ.-ALCOCER PEÑALVER. 78 urte. 98-XI-30  
 JOSE SUINAGA SARASKETA. 73 urte. 98-XII-2  
 RAMON MARTIN CETULIO. 91 urte. 98-XII-4  
 MERCEDES LAISECA ANGULO. 88 urte. 98-XII-7  
 ESPERANZA VALERO URDANPILETA. 80 urte. 98-XII-7  
 EUGENIO ATXA AGIRREGOMEZKORTA. 74 urte. 98-XII-8  
 ELOY LLUVIA RODRIGUEZ. 84 urte. 98-XII-9  
 JESUSA ZUBIARREMENTERIA MARKINA. 82 urte. 98-XII-9  
 VICTORIA LIZARRALDE ALBERDI. 86 urte. 98-XII-11  
 MARIA ARIZNABARRETA ARANZIBIA. 82 urte. 98-XII-12  
 CARMEN FELIPE SANCHEZ. 86 urte. 98-XII-12  
 FERNANDO SARASUA UGARTE. 44 urte. 98-XII-12  
 AINHOA MAGUNAZELAIA OTXOTORENA. 25 urte. 98-XII-13

## Matrimonios

—AMAIA KINTANA LARREATEGI / LUIS MIGUEL GARCIA BLANCO. 98-X-3  
 —SUSANA UZKUDUN KORTABARRIA / ANGEL BASTERRIKA NAVARRO. 98-X-3  
 —NEREA ONDARRA ARRIZAB. / AITOR URIGUENPAGATE ZARANDONA. 98-X-10  
 —ARRATE MAGDALENO DAVILA / ALBERTO LOPEZ PINILLA. 98-X-10  
 —EMMA OKAMIKA BALENZIAGA / HERACLIO ETXEBERRIA IRIGOIEN. 98-X-10  
 —JOSUNE GARRO ARRANZ / ALEJANDRO CABO CONDE. 98-X-11  
 —FLOR MARGORI LOAIZA ARANGO / J. ANTONIO HDEZ. GARRIDO. 98-X-11  
 —ALEJANDRA HERNANDEZ NIETO / ENRIQUE CHIMENO TABOADA. 98-X-11  
 —ANGELES GUTIERREZ RODRIGUEZ / FERMIN GOMEZ JEREZ. 98-X-17  
 —IRATXE CARRACEDO / AITOR ZABALA OSORO. 98-X-17  
 —LEIRE ARISTI AIZPURUA / ERNESTO LOPEZ AZPIAZU. 98-X-24  
 —MIREIA CALATAYUD ORTEGA / GORKA ETXABURU AIALA. 98-X-24  
 —IDOIA LAFUENTE ESPILLA / ALEXANDER ARTOLAZABAL BRAVO. 98-X-24  
 —IZASKUN INTXAURRAGA IRAETA / J. RAIMUNDO LARRAÑAGA JALON. 98-X-31  
 —MERCEDES PRIETO PRADA / DANIEL EÑAN URAIN. 98-XI-7  
 —OLGA ELKOROIRIBE LAMARIANO / UNAI AROSA BENITO. 98-XI-7  
 —VERA LUCIA BRANDAO CANDIM / JAVIER AGUSTIN ETXEBERRIA SARASUA. 98-XI-13  
 —ELENA ABASCAL GONZALEZ / FCO. JAVIER TELLERIA VIDAURRE. 98-XI-14  
 —IRENE ETXANIZ ARRIZABALAGA / JUAN CARLOS DIEZ VARELA. 98-XI-21  
 —ARRATE ZULUAGA ARANZETA / ANTONIO LARREATEGI AGIRREGOMEZKORTA. 98-XI-21  
 —GARBIÑE KORTABERRIA ITURBE / JUAN MARIA EIZAGIRRE AGIRRE. 98-XII-5  
 —BENEDICTA RICAFRANCA RODELOS / JAVIER ARGINZONIZ BENGOA. 98-XII-9  
 —ELENA AGIRRE GOIOGANA / OLEGARIO LUENGO GONZALEZ. 98-XII-9

## Nacimientos

JUNE PRIETO ALZERREKA. 98-X-2  
 JONE LARRAURI IRIONDO. 98-X-3  
 MARINA CORTES BEITIA. 98-X-9  
 ELENA LASKURAIN BALENZIAGA. 98-X-16  
 OHIANE GIL ROMERO. 98-X-16  
 MIKEL SORALUZE OIARZUN. 98-X-20  
 ELENA ALDIZABAL AROSTEGI. 98-X-21  
 JON ANDER MAYORAL LEMOS. 98-X-22  
 ANDER ARRUTI LAPEIRA. 98-X-23  
 LEIRE DE BLAS BERGARA. 98-X-25  
 IÑAKI PERALES ERRASTI. 98-XI-9  
 IRENE SACEDA MARTIN. 98-XI-9  
 KEPA ETXANIZ OSES. 98-XI-9  
 MAITE GONZALEZ MARZANA. 98-XI-11  
 LAURA RUIZ JULIAN. 98-XI-16  
 LEIRE LOPEZ VILANOVA. 98-XI-19  
 NAIA KORTABERRIA GARETXANA. 98-XI-25  
 UNAI ARRIOLA AMESTI. 98-XI-27  
 MARIA VALDIVIA URIBARRI. 98-XII-1  
 IKER OIARBIDE FERNANDEZ. 98-XII-1  
 JANIRE EL ALLALI FERRERA. 98-XII-3  
 ANE JURADO MURGA. 98-XII-5  
 LEIRE ISO MUGURUZA. 98-XII-5  
 ANDER SANTIAGO GOMEZ. 98-XII-14  
 MIKEL CAÑAVERAS GOMES. 98-XII-17

**ESTEBAN  
OROZ**

**TOPALEKAUN** azaroaren 26tik  
abenduaren 6ra

**A** metsaren eta begiespenaren ikuspegitik begiratuko bagenu bezala, horrelaxe hurbiltzen gara Orozen pinturara (Etxeauri -Nafarroa-1943). Arte munduan urte asko eman ondoren, sormenerako duen gaitasun horri esker bere estilo propioa eskuratu du eta egiten duena poesia bilakatu; espazioak ikuspegi simetrikoko baten barneratu ditu eta gardentasunaren sentibiltate jariakorra gogorra ekartzen digun giro arkitektonikoa nabaria da.

Egin dituen erakusketak guztiek; jaso dituen sari handi guztiek; bere lanaren jarraikortasuna eta eboluzioa adierazten dute.

Oreka osatu bat erakusten duten konposizio horietan dibujoa malgutasunez dabil, angeluz jostia, garbia; kolore aberatsak; poetikoa dirudien eszenategi baten; pertsonaiek eta paisaiek osatzen duten edertasuna... Ez dugu besterik esateko: Esteban lagunaren ibilbide berri honekin goza bezazue!



*Primeros Premios*

- 1983 - Bergara
- 1984 - Muzkiz, Azkoitia
- 1985 - Zarautz, Azkoitia, Deba, Plencia
- 1987 - Aretxabaleta
- 1988 - Deba
- 1989 - Getxo
- 1991 - Mungia, Arrasate, Zalduondo, Gorliz, Getxo, Eibar
- 1992 - Mendaro, Oñati
- 1994 - "Pasajes de Castilla y León", Muzkiz, Donostia
- 1995 - Zalduondo

*Segundos Premios*

- 1983 - Arrasate, Markina
- 1984 - Arrasate
- 1986 - Deba, Azkoitia
- 1987 - Elorrio, Bera de Bidasoa
- 1990 - Oñati
- 1991 - Gallarta, Bergara, Zalla
- 1992 - Deba
- 1993 - Aretxabaleta, Zarautz, Zalduondo, Abadiño
- 1994 - "Cafe de Iruña" de Bilbao, Ermua, Lejona
- 1995 - Soraluce, Beasain

... e innumerables premios y Galardones durante los años 1996, 1997 y 1998.

**TOPALEKU: HAU DA KULTURA, EGUNEROKO OHITURA BIHURTU GURA**

**SUSANA  
HURTADO**

**TOPALEKUN** azaroaren 5etik 15era



**S**usana Hurtado, pinta, saborea lo que pinta. En ella se produce una atmósfera complaciente que solicita los sentidos de quien la mira. Fiel a un entendimiento de la pintura como refracción de la luz, sabe despertar al color y sujetarlo luego en unos entornos eficaces que lo contienen sin dañarlo, pero ni siquiera entonces el espectáculo del color se pierde de vista. Susana Hurtado, que cultiva estas tendencias y sabe extraer de ellos valiosos resultados, pero tan a su modo y manera que cualquier alu-



sión se sumerge en fiesta de color que ella organiza y conjuga todo lo que hay en el Arco Iris. Figura, Bodegones y Paisajes gozan aquí de este derroche de color y forma. No lo pensemos más y disfrutemos de esta buena exposición.

**J.M. Aguirre Zenitagoya**  
Pintor

## DUELA 50 URTEKO TXAPELA GOGORATUAZ

### Omenaldi beroa jaso zuen Miguel Gallastegik

**B**ete-bete eginda azaldu zen Astelena frontoia San Andres bezperan, Miguel Gallastegi pelotari eibartarrari bertan egindako omenaldian. Izan ere, Gallastegik Ber-

garako frontoian Atano III-ri 22-6 irabazi zion 50. urtemuga bete zen azroaren 28an.

Jende ugari gerturatu zen Astelenara Gallastegiren omenaldira eta hainbat



Txapelketa irabazitakoan, jasotako omenaldia. Berarekin Txapasta, Txakaño, Mari Sol eta Laura.



Duela 50 urteko sasoiak. Argazkian, Gallastegi txapeldun berriak foball zelaian jasotako omenaldia.

sari eman zizkioten pelotari eibartarrari, hain zuzen, Aspe enpresak, Mandiola bailarako bizilagunek, Izarra elkarteak, Eibarko udaletxeak, Diputazioak eta Euskal Jaurleri-

tzak eman zioten sariak Gallastegiri.

Omenaldiko partidu estelarra Elkoro eta Etxanizek jokatu zuten, eta elgetarra nagusitu zen bertan.

## Eibarkerak izan duen gutxiespena aztertu du Antxon Narbaizak

**E**ibarko euskara: gutxiespenaren historia idatzi du Antxon Narbaizak. Eibarko Udaleko Euskara Batzordeak eman du argitara eta atzo bertan aurkeztu zen, Portaleko kultur etxean.

Jakina denez, bizkaiera da Eibarren egiten den euskara. «Hipotesi bezala, pentsa liteke zenbaitentzat eibarkera bizkaiera txar bat dela», dio Narbaizak bere lanaren sarreran.

Eibarko euskara aski urrun dago gipuzkeratik, «baina ia era berean arrotz xamar enbor bereko albo-bizkaiera estandarretik», dio egileak.

Narbaizak argi utzi du, bestalde, es datorrela bere lanarekin euskara batua versus euskalkiak eztabaida zahar «eta guretzat antzu» berritzeko asmotan. Eta jarraitzen du eibartarrak: «Euskalkiak bizirik nahi ditugu, euskaldun askok bere batbatekotasuna, berbetaren freskotasuna, beraietan baino ez baitu aurkitzen».

Honenbestez, liburuaren helburua hau omen da: «Euskaldun hiztun gizabanakoak bere herriko mintzairaren nolabaiteko berreskurapen beharraren kontzientzia izan lezanekoa litzateke. Bada baina bilakera hori oztopatzen duen zertzeladarik. Tokian tokiko berbetak ez dirudi gehiegi estimatzen direnik. Guri dagokigun kasuan, batez ere. Izenburuan aipatzen den bizkaieraren gutxiespen hori badirudi ez dela oraindik ere itzali eta hona egin nahi genukeen ekarpen sotila».

Eibarko euskarak izan duen leienda beltz horrek mende honetan du sorburu, Narbaizak dioenez. «Edozein txolartetan, eta euskara kontuan, gurea barregarri geratu izan da nor nongoa den aipatzen hasi orduko. `Hau dok tienpua trigua maduratzeko´ moduko esapideak jarri ohi dizkigute nonahi belarri aurrean», dio liburuan.



### PRAKTIZITATEA

Narbaizak uste du, ordea, Eibarko euskarak ezagutu izan duen ikurrik argiena «praktizitatea» izan dela. Hau da, «gauzak, hiri-kontestu batean, euskaraz esateko grina, nahiz eta adierazi nahi dugunak euskal ordainik izan ez. Villasantek darabilen hitz batez adierazteko, tresnatasuna izan ohi zuten kontuan gure aiton-amonek eta horregatik dena euskaraz emateko aztura guztiz osasungarria».

Horrelako ohiturak emaitza onak izan zituen industriaren arloan eta, Juan San Martin eibartarrak bere herrian bildutako lexiko teknikoak ikusi besterik ez dago.

## IMANOL LASPIURRI AGUR


**IMANOL LASPIUR** euskaltzain urgazle eibartarra hil zen abenduaren 24an. Eibarko euskararen eta euskara batuaren defendatzaile sutsua zen Laspiur.

Bete egin zen 25ean Eibarko Orbea frontoia Imanol Laspiur euskaltzain urgazle eibartarrari azken agurra emateko. Liburu, iritzi artikulu, hitzaldi eta azterketa ugarik osatzen du Imanol Laspiurren lan ze-

rrenda, eta amaitu gabeko eta argitaratu gabeko beste hainbat lan eta azterketek ere badute lekua aipatu zerrenda horretan. Ikastolaren eta gaueskolen mugimenduan sakon jardun zuen lanean euskaltzain urgazle eibartarrak, eta horren isla txiki bat besterik ez da orain bi urte kaleratu zuen *Eibarko ikastolaren historia txikia* lana.

Bere lan filologoetan akaso ezagunena eta ga-

rrantzitsuenetakoa Eibarko azentu diakritikoari buruz egindakoa da, ondoren *Euskera* aldizkarian argitaratu zuena. Azken urteotan, batez ere Eibarko euskara lantzen eta sakontzen jarraitu zuen Imanol Laspiurrek. Bere lanak Eibarko ...*eta kitto!* astekarian argitaratzen zituen hamabostero Laspiurrek, eta azken lanen artean *Eibarko deklinabidea* dago, bukatu gabea.



Aunque nacido en Bergara, Imanol residía en Eibar desde muy joven. Era maestro industrial y miembro de Euskaltzaindia. Publicó escritos en “Euzko Gogoia”, “Karmel”, “Jakín”, “Zeruko Argia” y “Euskera”, además de en “...eta kitto!” -donde colaboraba quincenalmente- y en nuestra revista “Eibar”.

Tomando como base el euskera, realizó trabajos de investigación hasta poco antes de morir; fue además uno de los impulsores de la Ikastola de Eibar y publicó hace dos años un libro que reflejaba dicho proceso. A pesar de ser partidario del euskara batua, impulsó asimismo el conocimiento del euskara eibarrés, con interesantes aportaciones sobre declinación, onomatopeyas, juegos antiguos, etc.

Vaya desde aquí nuestro más sincero agradecimiento a la labor desarrollada por Imanol Laspiur en pro de Eibar, a la vez que nos solidarizamos con los más allegados.

—Revista Eibar—

**Agur beroa eskaini zion Eibarko herriak Imanol Laspiurri. Orbea frontoian egin zitzaion omenaldia, eta lagun eta lankide izan zituen zenbaitek hitz goxoak izan zituzten berarentzat. Tartean izan zen Serafin Basauri, Imanolen laguna eta euskaltzain urgazlea. Omenaldian Basaurik Imanoli eskainitako hitzak jaso ditugu:**

*Imanol agur egitera batu garan honetan hiru edo lau berba, laguna naizenez. Haren abertzaletasunaz eta euskaltzaletasunaz zer esango dot ba nik zuek ez dakizuenik.*

*Neri alkarrekin bizi izandako momentuak, bizipenak, datorkidaz gogora; Arraguetako bere etxian, ixilpian, batzen giñanekuak. Urbixa, Larraitz, Santa Ageda kantuan ibiltzen giñanekuak, kartzelako egunak, eta harrezkero euskeriaren aldeko haren ekintza aberatsa hurririk segidu doguna.*

*Beti tinko eta leial bere konbikziñuekin. Bazekixan bizi izaten, maitte eban naturalezia, maitte eban bizixa. Oin jua egin jaku eta triste jartzen gaitsu honek, baiña aurrera doia bizitzia.*

*Seguru nago bera samurra izan arren, geure tinkotasuna eta konpromisua gura izango littukiala. Momentu esperantzagarri honetan eta haren ereduari jarraituz, etenik bako eginbihar ederra daukagu, bakotzak ahal daben neurrixan gure herri honen aurrerebidian laguntzeko. Hori da Imanoli egin geinkixon omenaldirik onena.*

*Agur, Imanol, baiña ez adixorik.*

## Agustin Zuluagari omenaldia

Abenduaren 15ean, domekan, ekitaldi berezia izan zuen Eibarko Udal Bandak, Santa Zezilia eguna aprobetxatuz. Bandaren zuzendari izandako Agustin Zuluagaren jaiotzaren 100. urtemuga aitxakiatzat hartu eta omenaldia eskaini zioten Astelena frontoian. Eguerdiko 12.30etan hasi zen eta jendez gainezka zegoen frontoia: “*uste baino jende gehaigo hurbildu zen. Oso polita izan zen eta Ban-*

*dako baten batek esan bezala, abestiren batean emozio-natu egin zen*” azpimarratu du Molina zuzendariak. Omenaldian Zuluagatarrak egon ziren eta oso pozik zeuden, “*kontzertua oso polita izan zela esan ziguten senide-ek. Kontzertua ondo atera zela esan daiteke*”, esan du Bandako zuzendariak. Juan Aldaik egin zuen aurkezpena eta jarraian Zuluagak egindako hainbat pieza jo zituen



**Gazte batzuk debuta egin zuten Udal Bandarekin.**

bandak, “Cielito” pieza, besteak beste. Astelena zabaldu denetik bertan egiten den le-

henengo ekitaldi kulturala izan da Santa Zezilia eguneko.



“Ego-Ibarra” udal Batzordearekin elkarlanean, aldizkari honek sail baerri bati ekiten dio oraingoan. Gure hiriaren memoria historikoa berreskuratzeko ahaleaginean jarduten duen Mertxe Garatek zuzendutako batzordeak oraingoan Feliciano Castrilloren Fondoko argazkiak laga dizkigu, bertako irudiak eta pertsonaiak identifikatzeko asmotan. Argazki bakoitzak erreferentzi zenbakia darama, gure irakurleek erantzunak bidal ditzaten. Urte amaieran zozketa egingo da konkurtsoan parte hartu dute guztien artean.



1



2

En colaboración con la Comisión Municipal “Ego-Ibarra” que, presidida por Mertxe Garate, trabaja en pro de la recuperación de la memoria histórica de nuestra villa, con este número damos comienzo a un nuevo apartado en nuestra Revista. En él vamos a ir insertando, con su número de referencia, diferentes fotografías del fondo donado al Ayuntamiento por Feliciano Castrillo, para que nuestros lectores colaboren en su identificación. A final de año se llevará a efecto un sorteo entre todos aquellos que hayan tomado parte en el mencionado concurso.





5



6

A final de un  
un sector que  
que haya  
de



7



8

# Gazteentzat

## *Para los Jóvenes*


**V**amos a entrar en el último año del 1900, más he aquí que nos hemos encontrado con unos consejos del escritor OG. Mandino, los cuales creemos que son válidos para los jóvenes del próximo siglo, y sin más las exponemos:

a) No fuiste creado para una vida ociosa.

El trabajo no es tu enemigo, sino tu amigo.

b) No existe ningún gran logro que no sea el resultado de un trabajo y una espera paciente.

c) Es imposible avanzar en la vida sin objetivos. Planea lo que tienes que hacer y finalmente ¡hazlo!



d) No hagas planes que abarquen más de un año. Recuerda que nada es permanente, pero atesora el amor que recibas.


e) El emprender la acción es siempre peligroso, pero el sentarse a esperar puede conducir al fracaso.

f) La mente es un lugar propio y, en si misma, puede hacer del infierno un cielo, o del cielo un infierno.

g) Simplifica tu vida. Es más rico el que se contenta con menos.

h) Vive con la muerte como tu compañera, pero nunca la temas. Muchos tienen tanto miedo de morir que jamás viven. Así gustarás la dulzura de cada nuevo día. Porque si mueres, tú estarás con Dios, y si vives, El estará contigo.

Tomados de "El éxito más grande del mundo", de OG. Mandino. Vergara/Diana.



 **kutxa**

*fundazioa*  
*fundación*